

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 27a

628. zenbakia

AZPIEGITURAK / Avaya eta Geofisa enpresek egingo dute lanen lehenbiziko fasea

Abendurako amaitu nahi dituzte Urteagako lanak

EDU MENDIBIL

Dagoeneko hiru aste daramatzate Urteagako Eskusarte harrobian lanean. Bi urte baino gehiago igaro dira Bergaratik Antzuolarako errepide zaharra itxi zutenetik. Avaya eta Geofisa enpresek dihardute mendi-mazelari eusteko lanetan.

Esan bezala, Avaya eta Geofisa enpresek egingo dute lanen lehenbiziko fasea. Trenbide-plataforma zaharrari eustea dute helburu aipatutako lanek eta horretarako plataformaren azpian horma ainguratua jarriko dute.

Lehen fasearen aurrekontua, 1,5 milioi eurokoa da. Geofisako iturrien arabera, lan konplikatu da Urteagan egin beharrekoa. Hogeitabat lagunek dihardute egunotan han lanean.

Bigarren fasean, berriz, mazelaren beste zatiari eusteko lanak egingo dira. Diputazioak aditzera eman duenez, lan hori bereziki zaila da, luraren egitura dela eta. Klimatologia ona ezinbestekoa izango dela aurreratu dute. Bigarren fasearen aurrekontua 2,5 milioi eurokoa da eta lanak oraindik adjudikatzeke daude.

Urteagako lanak urte bukararako amaitzea da Diputazioaren asmoa.

LERRADURAK BESTE ALDEAN BAITA

Bestalde, Arregi aroztegiaren goialdean dagoen harrobian ere lerradurak gertatu dira. Ekialdeko saihebidia egin zutenean, San Migelera joateko zegoen pista kendu zuten. Diputazioak pista berri bat egiteko lanei ekin zien, baina lerradurak gertatu dira azkenaldian. Arregi aroztegiaren pabiloiaren ondoan harri mordoak pilatu dira.

Urteagako enpresak, handik irten behar izandako bizilagunak eta egunero Antzuolarako joan-etorria egin behar dutenak haserre daude, egin beharreko lanek atzerapen nabarmena izan dutelako.



Eskusarten lerradurak izan ostean, Urteagako errepidea 2003ko azaroan itxi zuten.

Plan ederra aste bukaerarako

Gonzalo Diaz izan da Bergara KEK antolatutako zozketako irabazlea. Real-Barcelona partidurako bi sarrera, Donostiako Londres hotelean egonaldia, bi lagunendako afaria, Chillida Lekurako sarrerak eta 600 euroko saria eskuratu du irabazleak. Bergara KEK Fernando Ibañezek eman zion saria Gonzalo Diaz Deportivo taberna inauratu zutenean.



LABUR

1958an jaiotako bergararrek afaria egingo dute datorren ekainaren 11n

1958an jaiotako bergararrek afaria egingo dute ekainaren 11n, Zabala jatetxean. Egunean bertan Frontoian elkartuko dira, 20:00etan. Afarirako izenematea (12 euroko aurrerapena) Irrintzi tabernan egin daiteke.

Otaba jaiak ospatuko dituzte Elosun zapatutik astelehenera bitartean

Bihar, zapatua, haur jolasak eta txokolatada izango dira Elosun, 17:00etan, eta gauean afaria Elurmendi elkartean. Domekan, Meza Nagusia 12:00etan, ondoren pilota partiduak eta 17:00etan herri kirolak, Elosukorta eta Goenatxo harri-jasotzaileekin eta Bihurri eta Ugarteburu aizkolariekin. Astelehenean auzo bazkaria izango da.

Ganbara

TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

UREDERRA

ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



Irrintzi kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

eta zuk, nola ikusten duzu?
egunsenti bat edo momentu erromantiko bat?



EGUZKITAKO BETAURREKO GRADUATUAK 68€

HONDARTZARAKO
TOAILA
BAT
OPARI

MultiOpticas-ekin eguzkia nahi duzun moduan ikus dezakezu

30 eurogatik bakarrik zure gustuko betaurrekoak graduatzen ditugu

MULTIOPTICAS

Eskaitza baliagarria, 2005/07/30, momentuan eguzkitako betaurrekoak erosten (6ko kurba edo txikiagoa. Diametroa: 65 (+) 70 ()).
Eguzkitako lente organiko monofokalak. Astigmatismoa, gehienez 2 dioptria. Gehieneko graduazioa: +/-5 dioptria.

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

J.M.IPARRAGIRRE B.H.I
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

OSASUN FAMILIA, A ETA D EREDUETAN

TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Zaharren egoitzetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

AURREMATRIKULA:

Ekainaren 1etik 8ra (biak barne)


MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Ekainaren 30etik uztailaren 6ra (biak barne)



J.M.IPARRAGIRRE B.H.I

Santa Barbara bidea z/g 20700 Urretxu Tel: 943 72 14 03 • Faxa: 943 72 14 13
Posta elektronikoa: jmiparragirre@edunet.es • www.iparragirre.net



Skate pista berria erabiltzeko moduan dago jadanik.

AISIALDIA/Skate pista gaztetxo eta gazteen aspaldiko eskaera izan da

Labegaraietako skate pista egiteko lanak amaitu dituzte asteon

E.M.

Aste honetan amaitu dituzte Labegaraietako skate pista egiteko lanak. Ia urtebeteko atzerapenarekin heldu da skate pista, hasiera baten lehengo udan zabaltzekoa zen-eta. Edozein modutan, patinetearekin edo mendiko bizikletarekin akrobaziak egitea gustuko dutenek pista zabalik daukate dagoeneko.

U forma duten-pare bat karranpa daude eta beste hainbat elementu, skate eta pirueta zaleen gozamenarako. Aukeratutako superfiziera zementu labaingarria izan da, horrelako aisialdi-guneetarako oso egokia, pista

Kiroldegiaren berdegunearen ondoan egin dute pista, 47.725 euroko aurrekontuarekin

egin dutenen arabera. Hain zuzen ere, Tip-Top enpresako teknikoak pistaren egokitasuna probatzen izan ziren martitzenean eta pozik azaldu ziren lortutako emaitzarekin.

Pista egiteko lanen aurrekontua 47.725 euro da eta Donos-

tiako Tip-Top enpresa arduratu da proiektuaz. Uste baino gehiago luzatu dira lanok. Skate pista gaztetxo eta gazteen aspaldiko eskaera izan da. 2003. urtean Udalak 12-17 urte bitarteko gazteen aisialdi-beharrak aztertze-ko ikerketa egin zuen, skate pista izan zen gazteen eskaera nagusietako bat. Garai baten Matxiategin zegoena kendu zutenetik, ez zegoen patinetearekin gozatzeko toki aproposik.

Kiroldegiaren berdegunearen ondoan jarri dute skate pista. Hasiera baten, tenis pistaren ondoan jartzeko aukera aztertu zuten baina ondoren lekuz aldatzea erabaki zuen Udalak.

LABUR

Udaberriko Kontzertuaren ondoren izango den herri bazkarirako txartelak salgai

Musika Eskolaren Udaberriko Kontzertua izango da ekainaren 5ean. Ondoren Espoloian egingo den herri bazkarirako txartelak salgai daude Musika Eskolan.

Era berean, matrikula egiteko epea zabalik dagoela gogoratzten du Musika Eskolak. Argibideak 943 76 57 80 telefonoan.


EHNA tramitatzeko aukera izango da bihar, zapatua, Barrenkaleko Irizar jauregian

Bai Euskal Herriari taldeak deituta, EHNA tramitatzeko aukera izango da zapatuan, maiatzaren 28an, Irizar jauregiko sarreran, 11:30etik 13:30era.

Interesatuak errolatze-agiria eta hiru argazki eraman eta 15 euro ordaindu beharko dituzte. Hileroko azken zapatuan EHNA tramitatu dute Irizarren.

1942an eta 1949an jaiotakoek ospakizunak ekainaren 4an eta 1935ekoena ekainaren 12an

1942an jaiotakoek afaria izango dute ekainaren 4an, Azpeitxi jate-txean. Izenematea (15 euro) Mizpildi okindegian, Edel tapiz denda edo Azpeitxi jatetxean bertan. Egun berean, 1949an jaiotakoek bazkaria izango dute Tartufon (943 76 35 51). Bestalde, 1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute ekainaren 12an Zumelaga jate-txean. Izenematea (12 euro), Euskadiko Kutxan.



Sinesia Hermosilla bergararrak ehun urte bete zituen zapatuan, maiatzaren 21ean

Sinesia Hermosilla bergararrak 100 urte bete zituen joan den zapatuan, hilaren 21ean. Burgoseko Quintanilla San Garcia herrian jaioan, 1940. urtean etorri zen Bergarara Sinesia. Rodrigo Rubioren alarguna, bost seme-alaba izan zituzten eta egun zortzi iloba eta lau birloba ditu Sinesiak. Zapatuan, familiar-tekoekin ospatu zuen hain data berezia. Zorionak!!!

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

AMAIA ETXEBERRIARTEUN/DEBABARRENA TALDEKO TXIRRINDULARIA

“Uste baino gogorragoa da lehiatzea”


EDU MENDIBIL

Amaia Etxeberriarteun bergarra emakumezkoen Debabarrena txirrindulari taldean dabil aurten. Juanjo Sebastian da taldeko zuzendaria eta 12 neskek osatzen dute taldea, emakumezkoen txirrindulari talde bakarra Gipuzkoan.

Amaiak (28 urte) betidanik gustuko izan du ziklismoa eta joan den urtetik serioago hartu zuen. Hain zuzen ere, Quebrantahuesos klaseko ospetsua bukatzea lortu zuen eta horrek ireki zizkion Debabarrena taldeko ateak: “Taldeko baten mutilak animatu ninduen lehiatzen hasteko eta ondoren Juanjo Sebastianen deia jaso nuen, konpromiso barik beraien taldean hasteko, probatzeko”. Lehiaketa uste baino gogorragoa gertatu zaio: “Erritmo bizian jokatzen dira lasterketak eta oraindik ez dut batera amaitzerik izan. 60-80 kilometro bitarteko lasterketak izaten dira, baina Valladoliden jokatutako Munduko Kopakoak 127 kilometro zeuzkan. Maila handia zegoen han guretako...” diosku. Bere burua definitzerakoan zera dio Amaiak: “Terrenoa laua denean ibiltzen naiz ondoen; aldapan gora nahikoa sufritzen dut...”.

BIZKAIKO BIRA EKAINEAN

Lana eta kirola tartekatzea ez zaio erreza gertatzen. Hiru errelebotara dabil lanean eta astean



Dagoeneko hiru lasterketatan hartu du parte Amaiak aurtengo denboraldian.

bost egunez entrenatzen saiatzen da: “Entrenatzaileak badaki zein den nire egoera eta alde horretatik ez gaitu estutzen. Bizikletan korritzea eta ahalik eta gehien disfrutatzea da nire asmoa, besterik ez”. Ekainaren 9tik 12ra bitartean Bizkaiko Ema-

kumeen Bira jokatuko da eta Amaiak ez daki parte hartzerik izango duen. Bien bitartean, gogor entrenatzen ari da. Kirola egiten duten nesken egoeraren gainean zera dio: “Diskriminatuta gaude erabat, komunikabideek kasu gutxi egiten digute”.

Gustuko txirrindularien artean Koldo Gil eta tropelean dabilzan neska guztiak nabarmentzen ditu: “Guztien esfortzua eta lana baloratzekoak dira. Koldo Gil, berriz, ezaguna da: tipo jatorra. Poz handia hartu nuen Giroan eta pa irabazi zuenean”.

LABUR**Lau futbol partidu izango dira aste bukaeran**

Bi futbol partidu jokatuko dira zapatuan: Bergara-Aretxabaleta (preferente maila, 16:30 eta Bergara-Urki (gazte maila, 18:30). Domekan, gazte mailako bigarren taldeak Urnieta hartuko du 12:00etan eta oinezko kadete mailakak Kostes izango du bisitari, 12:00etan.

Fernando Markina, Gipuzkoako txapeldun

Fernando Markinak Gipuzkoako Arku Tiroketa Txapelketa irabazi zuen zapatuan, Donostian. Markinak 671 puntu lortu zituen eta absolutu mailako txapela lortu zuen. Puntuazio maximotik (720 puntu) nahiko gertu geratu zen tiratzaile bergarra.

Ipintzako futbol txapelketako partiduak

Bihar, zapatua, beterranoen mailako partiduak izango dira Ipintzan, 09:00etan hasita. Bost partidu jokatuko dira. Astelehenean, berriz, senior mailako Penomenuak-Ogizun nesken partidua izango da, 19:00etan.

**Bergara-Antzuola kadete mailako finala bihar, Zumarragan**

Bergara KEko kadete mailako bigarren taldeak Kopako finala jokatuko du bihar, zapatua, Antzuolako taldearen aurka, Zumarragako Argixao futbol zelaian, 16:00etan. Aitor Gorosabelek entrenatutako taldeak Lengokoak taldea kanporatu zuen finalerdietan: partiduan hiruna berdindu ondoren, bergararrek penalti jaurtiketatan lortu zuten finalerako txartela. Final laurdenetan ere penaltietan egin zuten aurrera, Amara Berri kanporatuta. Zapatuan Kopa trofeoa ekartzen saiatuko dira futbolari gaztetxoak.

Bergararrak txapeldun Herri Arteko Plater Tiroketan

E.M.

Bergarak irabazi du aurtengo Herri Arteko Plater Tiroketa txapelketa. Legazpi, Oñati, Urretxu, Zumarraga eta Bergarako taldeak izan ziren lehian eta bergararrek lortu zuten garaipena.

Jokatutako bost tiradetako lau puntuaziorik onenak hartzen dira kontuan eta taldeka irabazteaz gain, Manuel Gimber bergararrak irabazi zuen banaka eta

junior mailako onenaren sarla Aritz Iñarrak eskuratu du. Aurtengoa txapelketaren 20. ekitaldia zen eta Bergarak bigarren aldiz lortu du garaipena.

PAZKOETAKO TXAPELKETA

Bestalde, Pazkoetan, hilaren 16an jokatutako txapelketan, Jose Mari Urriategi izan zen irabazlea plater tiroketan eta Luis Etxebarri berriz, usakume tiroketan izan zen nagusi.



Argazkian, Oñatin jokatutako azken tiroketan parte hartu zuten bergararrak.

MUSIKA / Jardunen 15. urteurrena ospatzeko emanaldia egingo dute zapatuan, 23:00etan

Kerobia, Matxura eta Azkaiter Pelox gaztetxean

EDU MENDIBIL

Jardun elkartearen 15. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, Kerobia, Matxura eta Azkaiter Peloxek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean, 23:00etan.

Kerobia talde nafarrak izen bereko diskoa aurkeztuko du bihar, Bergaran. Diskoa joan zen urteko udan grabatu zuten, Iruñeko K estudioan, eta harrera bikaina izan du. Aurretik ere ezaguna zen Kerobia taldea; izan ere, Euskadi Gaztea Maketa Lehiaketa irabazi zuten 2003ko azaroan, *Zauriz betetako ura* izenburuko kantua maketaren ardatza zelarik. Xabi Fernandez (kitarra eta ahotsa), Karlos Ortiz (baxua), German San Martin (teklatuak)

eta Mikel Zorrillak (bateria) osatzen dute Kerobia. Beraien lehenbiziko diskoan 10 kantu plazaratu dituzte, besteak beste, Leihotikan taldeko Gorka Armendariz edo Berri Txarrak-eko Gorka Urbizu musikarien kolaborazioekin.

Matxura taldeari dagokionez, orain dela urte eta erdi inguru sortutako taldea da. Gorka Arizmendarreta elgetarrarekin batera, Soralezeko Jon Elizburuk (baxua) eta Loiola Maderak (bateria)

osaten dute Matxura. Pop-rock doinuak lantzen dituzte euren kantuetan.

Bestalde, Azkaiter Pelox goitizenaren atzean Unai Azkarate bergararra dago. Bere estilo propioarekin, berak sortutako hainbat kantu eta kantu ezagunen bertsioak eskainiko ditu Azkaiter Peloxek.

DIRTIES ETA AMEBA, GAUR

Gaur, egubakoitza, Elorrioko DIRTIES eta Berako Ameba taldeek joko dute gaztetxean. Emanaldia 22:30ean hasiko da.

BI EMANALDI JAM ARETOAN

Jamen bi emanaldi izango dira asteburuan: gaur, Morodo, Shotta eta Urbano Sapiens taldeak izango dira eta bihar, zapatua, Black Lebel Society Mafia eta Merldrum taldeek joko dute. Bi kontzertuak 22:00etan izango dira.

*Kerobia nafarrek
Euskadi Gazte
Maketa Lehiaketa
irabazi zuten
2003an*



BERRIGARA

Kerobiaren lehenbiziko diskoak harrera bikaina izan du.

LABUR

Luis Laskurainen margoak Arrasateko Arregi galerian ikusgai, ekainaren 20ra arte

Luis Laskurain margolari bergararraren erakusketa ikusgai dago Arrasateko Arregi arte galerian (Maalako Errebala, 8), ekainaren 20ra arte. Aste barruan 09:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 10:00etatik 13:00ak arte dago aretoa zabalik.

Simon Arrieta zeramika taldeko kideen erakusketa ekainaren 5era arte Errotalden

Simon Arrieta zeramika taldearen erakusketa ikusgai dago Errotaldeko aretoan. Erakusketa ekainaren 5era arte izango da zabalik. Aste barruan 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan 12:00etatik 14:00etara ikusi ahal izango da erakusketa.

Usoa Mendikute bergararrak margo erakusketa ikusgai jarri du Londresen

Londresen bizi den Usoa Mendikute margolari bergararrak erakusketa jarri du hango Euroart Studios Gallery aretoan. *This and that* izenburupean, 30 koadro jarri ditu ikusgai Mendikutek Tottenham futbol taldearen estadioaren ondoko galerian egongo dira.

Juan Antonio Untzurrunzagaren argazkia, Gasteizen saritua

Goian ikus dezakezuen *Paseando por la playa* izenburuko argazkiari esker, Juan Antonio Untzurrunzagara bergararrak lehen saria lortu du aurtengo San Prudentzio Argazki Lehiaketan. Gasteizeko lehiaketa Estatu mailakoa da, aurtengoa 36. ekitaldia zen, eta 900 argazki inguru jaso dituzte. Untzurrunzagak 600 euro eta diploma eskuratu ditu sari gisa.



- PODAK, TEILATUAK, TXIMINIAK, KANALOIAK, BAJANTEAK, FATXADAK ETA PATIOAK.
- ANDAMIORIK GABEKO LANAK.

Tel.: 676 952 968
680 641 401



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ZAHARRAK BERRI

Aurten 87 urte bete dituzten 40 bergararrek merezitako omenaldia jaso zuten domekan

IRATI AGIRREAZALDEGI

San Joxepe elkarteak merezitako omenaldia eskaini zien domekan aurten 87 urte bete dituzten 40 bergararrei. Bakoitzari oroigarri bana eman zioten.

Aurten 87 urte bete dituzten bergararrak 40 dira, baina horietatik sei omenaldia jaso aurretik hil dira. Hala ere, bai mezatan eta baita geroko ekitaldian ere gogoa izan zituzten.

Omenaldi honekin adinekoek publikoki euren esker ona azaldu nahi izan zieten, familian zein herrian urte luze hauetan egindako lanarengatik. "Zuen heldutasuna adibide bezala hartu nahi dugu, zuengandik asko ikasi dugulako eta oraindik asko daukagulako ikasteko", esan zuten San Joxepeko ordezkariak.

OMENALDIAN 14 LAGUN

Omenduek, senideek eta lagunek meza izan zuten lehenengo eta San Joxepen omenaldia gero. Omenaldian Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariak ere hartu zuten parte.

Agurra dantzatu zieten Oñatiko dantzariak, San Joxepeko abesbatzakoek ere eskaini zuten euren emanaldia eta bertsoak ere ez zen falta izan.

Ekitaldian ez zuten omendu guztiek parte hartu, 14 bakarrik izan ziren. Joan ezina azaldu zutenei etxera egingo diete bisita eta oroigarria eraman.



Plaka bana eman zieten omenduei eta ondoren luntxarekin ospatu zuten.

JESUS RUIZ DE EGINO

Aurten omenaldia jaso duten 40 bergararrak

- Isidra Aizpurua
- Pascasio Alberdi
- Maria Aldazabal
- Sofia Aranzabal
- Maria Teresa Askasua
- Enrique Barrutiabengoa*
- Martin Beain
- Jesus Belategi
- Vicente Camacho
- Manuela Campillo
- Fidel Diez
- Andres Egaña
- Juana Elkorro
- Vitorio Elkorro*
- Eustaquia Ereña
- Fernando Fernandez
- Margarita Garmendia
- Dolores Herzog
- Elena Iñarra
- Jesusa Igarzabal
- Petra Juaristi
- Florentina Larrañaga
- Benita Leturiaga
- Maria Lizarralde
- Maria Natividad Manzisidor
- Begoña Mujika*
- Josefa Nuñez
- Alberta Oiangueren*
- Donato Ormazabal*
- Valle Ots*
- Teresa Perez
- Josefa Perez
- Flora Sañudo
- Maria Pilar Sanchez
- Isabel Torre
- Sebastian Unanue
- Margarita Urzelai
- Maria Teresa Urkiaga
- Juliana Zangitu
- Rafaela Zangitu

* Aurten 87 urte bete arren omenaldia egin baino lehen hil dira bergarar hauek.

LABUR

San Joxepeko abesbatzakoak Andoainen


Andoainen egingo dute emanaldia San Joxepeko abesbatzakoek ekainaren 2an. Bertako antzokian izango da emanaldia arratsaldean eta San Joxepekoek gain, beste abesbatza batzuek ere hartuko dute parte, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia ordezkatzuz. Foru Aldundiak antolatutako ekitaldia da hau. Bestalde, Ekainean barrena beste emanaldi batzuk ere egingo dituzte; lehenengoa San Antonion ekainaren 13an eta San Joanen berriz, ekainaren 24an; biak bertako jaien aitzakian egindako kontzertuak dira.

Udaberri jaia hileko azken egunean ospatuko dute

San Joxepekoek udaberri jaia antolatu dute datorren maiatzaren 31rako, martitzenerako. Udaberria aitzakiatzat hartu eta jai giroa izango da nagusi elkartean. 17:00etan elkartuko dira askaria jateko eta ondoren, nahi duenak dantza egiteko aukera ere izango du. Horretarako Quintanilla arduratuko da musika ipinitzeaz. Bestalde, San Joxepeko jakinarazi digute datorren hilabeteko lehen bingo saioa ekainaren 8an izango dela. Parte hartu nahi dutenek 17:30erako egon beharko dute bertan jokatzeko prest.

ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

EDEL

TAPIZ DENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

BERGARA

MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77



Silvestre Muñoz, s.l.

pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak
orokorren
•
Pintura industrial
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

MINGAINARITIRAKA



Josune
Lamarain

ANDURI LANDETXEKOA

Ubera auzoan, errepidetik bi kilometrora, paraje ederrean dago Anduri landetxea. Orain dela bost urteko Aste Santuan zabaldu zuten. Josune oso gustura dago orduan hartutako erabakiarekin eta gaur egun daukan lanarekin.

Landetxea, nekazari turismo etxea... zer da Anduri?

Landetxea; izan ere, ez dugu lurra lantzen.

Zelako bezeroak izaten dituzue zuenean?

Adin guztietako jendea etortzen zaigu; gazteak, helduak, edadetuak; aitona-amonak bilobekin ere etorri izan zaizkigu.

Zer bilatzen du jendeak?

Hirietako egunerokotasunetik ihesi etortzen dira, leku lasaien bila; beste batzuek mendi ibilaldiak egiteko aukera nahi izaten dute. Dena dela, familia giroan egoteko aukera bilatzen dute guztiek.

Zein da baserritarra izatearen alde onena?

Ez dago goizeko seietan *fitxatu* beharrik, nahiz eta gaueko hamarretan lanean jarraitzen dugun askotan.

Eta txarreana?

Autoarekin gora eta behera ibili beharra.

Hiri batera bizi izatera joango zinateke?

Momentu honetan, ez, baina nork daki zer gerta daitekeen?

Norberaren etxea lantoki ere izatea ez da atsegina izango.

Bai, niri oso atsegina iruditzen zait; ez nuen pentsatuko hainbeste jende ezagutzeko aukera izango nuenik, neure etxean.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Altzari zaharrak berreskuratzea, baina ez dut denbora luzerik.

Liburu bat?

Los pilares de la tierra, Ken Follet-ena.

Film bat?

El hombre que susurraba a los caballos.

Euskal Herriko txoko bat?

Hondarribia leku paregabea da.

Bergarak zer falta du?

Musika, antzerki eta bestelako ekitaldietarako areto berezi bat.

Eta Bergarako gauza onena?

Bergarako gazteria izugarri jatorra iruditzen zait, ez dira atzera begira geratzekoak.

Amets bat?

Bake santu hori lortuko bagenu...

AINZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

UXUE LARRAÑAGA

23 URTE / INGENIARITZA IKASLEA / FRANTZIAKO TOLOSAN

“Handik etorritako ikasle guztiok elkartzen gara astebururo, elkarrekin afaltzeko”

AINZANE IRIZAR

Ingeniaritza ikasketak egin ziharduen Uxuek Arrasaten, iazko iraila ezker, Frantziako Tolosan dago, ikas-keta horiekin jarraitzen. “Ingeniaritzako ikasketekin Tolosan jarraitzeko aukera izan nuen, eta, bi aldiz pentsatu gabe, hona etortzea erabaki nuen; alde batetik, gero lana topatzeko aukera handiagoak izatearren erabaki nuen Frantziara etortzea, izan ere, titulu frantziarra izango dut. Bestetik, esperientzia berri bat bizi izatea nahi nuen; kanpora joan, jende berria ezagutu, kultura berriak...”

Horretarako, baina, frantsesa ikasi behar izan du Uxuek: “Urtebetez ibili nintzen Arrasaten, akademia baten, frantsesa ikasten;

“Tolosa ez da batere hiri ederra, baina bizitasun handikoa da, mugimendu handikoa”

gero, udan, Montpellierren egon nintzen, hango familia batekin eta akademia baten”.

Oso gustura dago Uxue Tolosan. Beste ikasle batzuekin banatzen du etxebizitza; gehienak euskaldunak dira, bat izan ezik, alemaniarra da.

Ingeniaritzako eskolarekin ere pozik dago: “Oso eskola ona da;

dena dela, hemengo ikasketak gogorragoak dira, zorrotzagoak: lan mordoia izaten dugu egiteko, azterketak urte osoan zehar izaten ditugu, praktika mordoia egin dugu... Oso gustura nabil”.

Euskaldun talde handia elkartzen dira eta harreman handia dute elkarrekin: “Arrasatetik, urtero-urtero, ikasle mordoia etortzen da Tolosara; oraingo ikas-turtean, esaterako, hamasei bat ikasle etorri gara. Euskaldunok harreman handia dugu elkarrekin”, diosku Uxuek.

Asteburuetan denak elkartzen dira: “Egubakoitzetan, garagardotegi batera joaten gara denok, garagardo batzuk hartu eta ondoren, *kebab* jatera joaten gara; iaztik datorren ohitura da, dagoeneko tradizio bihurtu da Arrasatetik joandako ikasleen artean”, diosku Uxuek. Zapatuetan ere irteten dira hango poteo antzekoa egitera.

BIZITASUN HANDIA KALEAN

Hiri berezia da Tolosa Frantziatik; halaxe azaldu digu Uxuek: “Frantziako herri eta hirietako kaleetan ez da mugimendu handirik egoten, baina, Tolosa ezberdina da; beti daude kaleak jendez beteta, mugimendu eta bizitasun handiko hiria da”. Kulturaren aldetik ere, eskaintza handia dago: “Beti dago zer ikusirik edo zer eginik”.

Garona ibaiaren ertzean parke handiak daude, eta jende asko elkartzen da hantxe: “Udan, batez ere, jende mordoia joaten da Garona ertzera, baita gu geu ere”. Dena dela, hiri bezala, ez zaio asko gustatzen Tolosa Uxuek: “Ez da batere hiri ederra, baina, inguruak oso politak dauzka”.

Euskal Herritik nahikoa gertu dago Tolosa, eta ahal duen guztietan etortzen da Uxue etxekoei bisita egitera; etxekoan eta lagunengan bisita ere behin baino gehiagotan jaso du. Datorren ikas-turtea ere hantxe egingo du, baina, behin ikasketak amaituta, Bergarara bizi izatera itzultzeko asmoa dauka Uxuek. Argazkian, Tolosako errugbi taldearen kamiseta jantzita ikus dezakegu.



AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein da
Angiozarko
baserri honen
izena?



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ELIAS LETErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Elias!

Galderaren erantzun zuzena: **Santio (Santiago), Basalgon.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Berberana

Ardo gazte beltza, 75 cl

1,39 €

231 pèzeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

**Mariaren Lagundiko
jaian, 1972. urtean**

Alboko argazkia 1972. urteko azaroaren 21ean aterata dago, Mariaren Lagundia ikastetxearen jaietan hain zuzen ere.

Erretratuan azaltzen diren ikasleek Batxilergoko 7. kurtsoa (Batxilergo Teknikoa zena) egiten ziharduten orduan. Sasoi hartan nesken ikastetxea genuen Mariaren Lagundia ikastetxea.

Mariaren Lagundiko "ortuan" zeritzon berdegunean aterata dago erretratua, eta argazkiko hainbatek ikastetxe-ko uniformeak jantzita duten arren, beste batzuk informala-go ageri zaizkigu. Hain zuzen ere, Maria Haurtxoa jaia ospatzen zuten egun hartan. Besteak beste, ikasleek beraiek

prestatutako emanaldiak, jokoak, tonbolak eta bestelako ekitaldiak izaten ziren jaia ospatzeko. Argazkiko taldeak antzerki emanaldiren bat prestatu zuen 1972. urteko jairako.

Hona hemen erretratuan agertzen direnen izen-abizenak, ezkerretik eskumara:

Goian: Antonia Sanchez, Izaskun Arakistain eta Ane Miren Seminario.

Hirugarren ilaran (zutik): Ana Mari Zeziaga, Anabel Zengotitabengoa eta Rosi Imaz.

Aurrean (jarrita): Ana Mari Erdoiza, Pili Fernandez de Retana eta Kontxi Laskurain.

Argazkia: Kontxi Laskurain



FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 27**
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- ZAPATUA, 28**
MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- DOMEKA, 29**
MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 30**
CAMACHO. Oxirondo 4. . . 943 76 11 74
- MARTITZENA, 31**
ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 1**
GUALLAR. San Antonio 5 . . 943 76 11 05
- EGUENA, 2**
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
 - Bergarako Udaltzaingoa . . 943 77 91 06
 - Antzuolako Udaltzaingoa . . 943 76 62 46
 - Ertzaintza 943 53 47 20
 - Osasun etxea 943 76 24 40
 - Asepeyo 943 76 16 43
 - Pakea 943 76 13 49
 - Angiozarko medikua 943 78 90 27
 - Antzuolako medikua 943 76 62 23
 - Odol emaleak 943 76 16 24
 - Alkoholiko Anonimoak . . . 943 76 51 06

- GARRIAOK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
 - Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
 - Udal Artxiboa 943 77 91 32
 - Igerilekuak 943 76 20 51
 - Kultura etxea 943 77 91 58
 - Liburutegia 943 77 91 62
 - Kiroldegia 943 76 56 41
 - Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
 - Erregistroa 943 76 13 15
 - Jardun 943 76 36 61
 - Postetxea 943 76 26 85
 - Bedelkar 943 76 04 68
 - Akulu AEK 943 76 05 18
 - Udal Euskaitegia 943 76 44 53
 - Bergarako notariotza 943 76 10 73


MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean),
Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo
(Soraluez aurrean), Matxiategi (Mizpildu
okindegia), Zurradero, San Antonio
(Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre,
Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta
(Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00
(Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20,
20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta,
Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoleta
(Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde),
Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga
eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Arazorik izaten duzu herrian autoa aparkatzeko?



AGUSTIN GURRUTXAGA



ARANTZAZU NARBAIZA



ESTEBAN GOROSABEL



MARISA MORENO



JOSUNE ROMARATEZABALA



ANTONIO IBARRA

Bai, arazo asko. Bai herriaren erdigunean eta baita auzoan ere. Ni Bolun bizi naiz eta batez ere gauean ezin izaten dut tokirik aurkitu. Aparkatzeko leku gehiagoren beharra dago, baina non ipini ez dakit.

Nik ez dut autorik erabiltzen, baina ikusten dut arazo handiak daudela Bergaran aparkatzeko. Arazo horrek, gainera, irtenbide zaila du, baina horri Udaleko teknikariek eman beharko liokete buelta.

Ez, ni Arrasatetik etortzen naiz eta Poligonoan aparkatzen dut, beraz, ez dut arazorik izaten. Gero erdigunera oinez etorri behar dut, baina ez zait inporta. Arrasaten baino toki gehiago dago hemen.

Ni ez naiz autoan ibiltzen, beraz, ez daukat arazorik, baina etxeokak larri ibiltzen dira aparkatzeko. Eskerrak garajea dugun eta bertan lagatzen dugun, bestela bueltara ibili beharko genuke egunero.

Bai, herri honetan bai. Bai herritarrok eta baita kanpotik datozenek ere. Libre dauden toki guztietan Udalak etxeak egiten ditu, ez besterik; ez umendako gunerik, ezta aparkalekurik ere.


Nik bai. Erdigunera etortzeko autoa behar dut urruti bizi naizelako, eta hemen aparkatzeko zaila izaten da tokia aurkitzea. Auzoan, berriz, ez daukat inongo arazorik, garajean lagatzen dudalako autoa.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK KARTOIAK EDUKIONTZI URDINERA Herritar batek kexa azaldu digu zakar edukiontzien ondoan kartoiak ikusi dituelako. "Birziklatu behar dela esaten dute, baina alferrik ari gara, jendeak zaborra ez badu dagokion edukiontzira botatzen; gainera, kanpoan lagatzen du. Kartoiak edukiontzi urdinera bota behar dira". //A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Handia, demasa, izugarria.
—Kotxia erosi jok, baiña sekulakua.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA


“Azal mota desberdinen inguruko informazioa ematen dugu, eta horretarako beharrezkoak diren kremen inguruan aholkuak ere ematen ditugu. Azal sentikorra, koipetsua, oso zuria, deshidratua... mota hauek guztiek tratamendu berezi eta espezifikoa behar dute, eta horregatik oso garrantzitsua da profesionalen aholkuak jarraitzea. Guk tratamendu espezializatuak burutzen ditugu, pertsona bakoitzaren behar zehatzei aurre egiteko modukoak. Orintxe tratamendu berri bat lantzen ari gara melatogenina deitutakoa. Tratamendu berri honekin posible da azalaren zahartzea errekuiperatzea”
JONE IGARTUA / Igaro dendakoa 'Zabalik' / 05-05-19

HAUGIROA!

MINIMOA Eguena, 19	7°C		
MAXIMOA Martitzena, 24	30°C		
ASTEKO EURIA (l/m ²)	5,1 L		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 18	20°C	9°C	- l/m ²
Eguena, 19	28°C	7°C	- l/m ²
Egubakoitza, 20	27°C	10°C	- l/m ²
Zapatua, 21	24°C	10°C	4,9 l/m ²
Domeka, 22	16°C	8°C	0,2 l/m ²
Astelehena, 23	21°C	10°C	- l/m ²
Martitzena, 24	30°C	7°C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

BERAIEKDIÑO/ Iñigo Garitano



Ostiak

Eliza, eliza katolikoaz dihardut, zabala da, eta ezagutzen dut erakunde horren barne lan zintzo, isil eta emankorra egiten diharduten hainbat apaiz, moja eta herritar boluntario ere. Urrutiago joan gabe, Santa Marina parrokian sortu den lantaldea. Atzerri-tarrek egiten diharduen lana eredugarri iruditzen zait. Elizan sortutako taldea da, baina erakundeok ez diren herritarrek erakartzeko gai izan da. Eredugarria dela esatean ez naiz emaitzetan bakarrik pentsatzen ari. Hori garrantzitsua izanik, lan egiteko ereduak da interesatzen zaidana: Eliza herritarrengana hurbiltzea, duela hilabete Erroman gertatutakoaren kontrakoa. Munduak bizi duen egoera ikusita, gizadiak dituen erronkak agerian daudela, Ratzinger kardinalak ordezkatzen duena Elizaren gida izatea etsigarria da. Elizak erakunde gisa dituen egiturak herritarrok erabili beharko genituzke giza espeziea-

ren mesedetan. Komunitate bakoitzeko ezaugarrien arabera lan egin beharko genuke. Ratzingerrek gogor salatu du erlatibismoa azken muturrera eramatea. Eta koherentzia falta ezin zaio leporatu, absolutismo moralak bultzatzen ari baita.

Domekan telebista ikusi nuen Espainiako hainbat elizatan zeliakoak diren gaixoei (glutena duten elikagaiak jan ezin dutenak) apaiz batzuk ez dietela ostia berezia eman nahi, garizkoak izan beharrean artozkoak, ez dakit zer doktrinako ez dakit zer arauk ez omen

duelako onartzen, eta haur zeliakoen kasuan, ardoa ematea proposatzen dute. Albistean, apaiz gazte serio batek hori egiteko arrazoia Erromako Doktrinako ez dakit zer Kongregaziok (lehen Ratzinger kardinalak zuzentzen zuena uste dut) erabakitakoan oinarritzen zuen apaiz horien jokaera.

Horrelako jarrerak gutxienez erakusten digute bide zuzena justu horren kontrakoa izan behar dela.

“Elizak erakunde gisa dituen egiturak herritarrok erabili beharko genituzke”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegui
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 27a / 245. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02



Zirika Zirkus taldearen emanaldia izango dugu, zapatuan, 18:00etan.

ARTXIBOA

Ondarreko jaiak antolatu dituzte hirugarren urtez

AINTZANE IRIZAR

Oraingo asteburuan Gorpuzti jaiak ospatuko dituzte Ondarre auzoan. Umeendako jolasak, erromeria, dantza saioa, prozesioa eta abar antolatu dituzte, ohi bezala. Aurten, baina, ekitaldi berezirik ere izango dute; besteak beste, zubia inauguratuko dute.

Orain dela bi urte berreskuratu zituzten Ondarre auzoko jaiak, hamar urteko geldialdiaren ondoren; ordutik, geroago eta indar handiagoa hartzen doaz jaiak.

Bihar, zapatua, hasiko dira jaiak; umeendako izango dira biharko ekitaldi gehientsuenak. Aiastui Peñak antolatutako ginkanarekin hasiko dira jaiak; 12:00etan izango da hori. 17:00etan, umeendako jolasak egongo dira; 17:30ean, umeendako krossa eta 18:00etan, berriz,

Zirika Zirkus taldearen emanaldia, umeendako hori ere. Loretsu Traketsu eta Bolitxe Zalaparta dira zirkuko protagonistak eta musika, malabarak, magia eta oreka jokoak izango dituzte lagun ikuskizunerako.

Iluntzean, 20:30ean, auzo afaria egingo dute; menua zein izango den jakinarazi digute: entsalada, oilaskoa eta pastelak. 22:00etan, erromeria egongo da eta kafea banatuko dute herritarren artean. Gauerdarako, azkenik, lasterketa bitxia antolatu dute,

Zapatu gauerako lasterketa berezia antolatu dute; maleta lasterketa, hain zuzen ere

maleta lasterketa, hain zuzen ere; badirudi oportetarako gosez dardela antolatzailak.

Domekan ere izango dugu zer ikusi eta zer egin. 12:30ean prozesioa egingo dute, elizatik Ondarre plazara; 13:00etan dantzari txikien saioa izango dugu eta 13:20an, auzotarrek salda banatuko diete Ondarrera joaten diren herritar guztiei. 13:30ean amaituko dira jaiak; dozena bat txuleta eta sei ardo botila zozkatuko dituzte ordu horretan.

ZUBIAREN INAUGURAZIOA

Ondarreko jaiak aprobetxatuko dituzte zubi berria inauguratzeko. Domekan, 13:15ean, izango da hori. Aspalditxo honetan zabalik dagoen arren, oraindik inauguratzeko zegoen Buztinzuri eta Ondarre lotzen dituen zubi berria. Aurrekoa egingo diote zubiari, eta gaita jotzaileek ere parte hartuko dute ekitaldian.


LABUR

Dantzari Egunean etxean umeak hartzeko deialdia egin du Oinarin dantza taldeak

Ekainaren 12an, domeka, Umeen Dantzari Eguna ospatuko dute herrian. Kanpotik etorriko diren umeak euren etxetan bazkaltzeko hartzeko deialdia egin diete herritarrei Oinarin dantza taldeko kideek. Horretarako interesa dutenek, honako tokietan eman dezaketeko izena: Martin okindegian, Itzar liburudendan eta Ainhoa lurrindegian. Guztira, 160 bat ume parte hartuko dute Umeen Dantzari Egunean.

Aiastui Peñak antolatutako bizikleta probak oraingo asteburuan hasiko dira Ondarren

Ginkana joko antolatu dute biharko, zapatua; 12:00etan izango da hori, Ondarreko jaietan. Datorren asteko zapatuan, ekainak 4, Iralako igoera jokatuko dute, 12:00etan. Ekainaren 18an izango da hurrengo hitzordua; Uzarragako igoera jokatuko dute egun horretan. Ekainaren 25ean, ginkana joko egongo da Kalebarrenen, eta urtero bezala, San Martzialerako igoerarekin bukatuko dira proba horiek, uztaileko lehenengo domekan.



Literatura sariak antzuolarrendako

Bergarako Udalak antolatutako Koldo Eleizalde Literatura lehiaketan sari bana jaso dute bi antzuolarrek. Xabier Arantzetak, bere mailan eta ipuinen atalean, lehen saria jaso du, *Etxeke lanak* bere ipuinarekin. Ana Peñalbari, berriz, hirugarren saria eman diote bere mailan, *Itzalaren beldur* lanarengatik. /A.I.

KIROLAK

Herriko gimnastak oso ondo ibili dira Gipuzkoako txapelketan

A.I.

Maiatzaren 7an jokatu zuten Gipuzkoako eskola arteko gimnasia erritmiko txapelketa. Hantxe oso emaitza onak lortu zituzten gimnasta antzuolarrak. Alebin mailakoek, esaterako, Herri Ikastetxeko neskek, taldeka irabazi zuten, pilotarekin.

Infantil mailan, sokarekin eta aroarekin, Lide Toledo lehenengo eta Jurdana Pildain hirugarren sailkatu ziren. Bestalde, aroarekin, taldekako txapelketa irabazi zuen Ariznoa taldeak; Lide eta Uxue Toledo eta Jurdana Pildain talde horretako kide dira.

Maialen Legorburuk, taldeka, aroarekin eta mazoekin, irabazi egin zuen txapelketa, Ariznoa taldearekin. Bakarka, zinta eta mazoekin, hirugarren geratu zen.



MARI BENI LARREA

Jone, Onintza, Amaia, Ane eta Eukene, Sonia Corredera entrenatzailearekin.

Alebin mailan, azkenik, taldeka, Herri Ikastetxeko neskek eraman zuten txapela, pilotarekin. Honako hauek osatzen dute

alebin mailako taldea: Eukene Bastarririkak, Onintza Legorburuk, Ane Alberdik, Amaia Irasortzak eta Jone Larrañagak.



Gazteek, ligako txapela irabazita, majo ospatu zuten!

Zapatu arratsaldean Idiazabalen jokatu zuen ligako finalako partidua gazte mailako futbol taldeak, Donostiako Ekintzaren aurka. Jende mordoan joan zen partidua ikustera, eta badirudi jendeak emandako animoek lagundu egin zirela; izan ere, 3-2 irabazi zuten. Joan ez zirenek, berriz, segituan jakin zuten berria, jaurti zituzten etxafuegoak entzunda. Zorionak, gazteok! /A.I.

LABUR

Antsietatearen gaineko berbaldia antolatu dute erretiratuek datorren hilaren 2rako

Antzuolako Erretiratuen Elkarteak antolatuta eta Kuxak babes-tuta, antsietatearen gaineko berbaldia egingo dute datorren aste-ko egunean, ekainak 2; 18:00etan izango da hori, Olanan etxe-ko aretoan, eta Oihana Etxabe izango da hizlaria. "Antsietateari aurre egiteko gakoak" izenburua dauka berbaldiak eta helburua da gaixotasunaren gaineko azalpenak ematez gain, gaixotasun horri aurre egiteko bideak erakustea.

Debagoieneko aurtengo Atzegi Eguna Antzuolan ospatuko dute, bihar, zapatua

Debagoieneko 170 bat lagunek parte hartuko dute bihar, zapatua, herrian ospatuko duten Atzegi Egunean. Aurten egun hori ospatzen duten seigarren aldia izango da. 12:30ean, udaletxean harre-ara egingo zaie parte hartzaileei eta sentsibilizazio kanpainako bideo bat erakutsiko dute; ondoren, herrian zehar ibilaldia egingo dute. 14:00etan bazkaria egingo dute Udal Pilotalekuan, eta bazkalos-tean, trikitilariekin dantzarako aukera izango dute.

Elkarrik berbaldia egingo du martitzenean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan

Datorren asteko martitzenerako, maiatzak 31, Elkarrik berbaldia antolatu du; 19:00etan izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Fernando Arzallus Elkarriko kideak 10.000 testigantzen kanpainaren gaineko azalpenak emango ditu; bestalde, ekainean bukatuko den Bake Konferentzia proiektu honen lehenengo emaitzak aurkeztuko ditu, besteak beste, Gogoetarako Mahai Aldeanitzaren eta Herrietako Parte Hartze Taldeen proposamenak.

Kadeteek Bergararen aurka jokatu dute kopako finala, bihar, zapatua, Zumarragan

Aurreko asteburuan etxean jokatu zuten finalerako sailkapene-ko partidua, Beraun taldearen aurka; 3-1 irabazi zuten antzuolarrak, eta horrela, finalerako sailkatu ziren.

Benetan interesgarria izango da, hortaz, biharko partidua; izan ere, finala izateaz gain, derbia izango dugu: Bergara izango du aurrez aurre Antzuolako taldeak. Zelai neutralean jokatu dute partidua, Zumarragako Argixao futbol zelaian, hain zuzen ere. 16:00etan izango da partidua.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Maiatzak 28 (Zumarragan)

16:00: Bergara-Antzuola (Kadeteak)

PILOTA

Maiatzak 27 (Deba Arroko Txap.)

20:00: Olalde-Eskoriatza (Nagusiak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 3 Ekintza 2 (Gazteak)

Antzuola 3 Beraun 1 (Kadeteak)

PILOTA

Deba Arroko txapelketa

Olalde-Lagunak (Nagusiak) 15-22

Arrasate-Olalde (Kadeteak) 10-22

Lau 1'erdiko txapelketa (Elgeta)

Mendizabal-Iraola 22-4

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI

taberna
jatetxea
Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak
Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko maiatzaren 27a / 228. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Plataformak ordezkari-tza eskatu du, udal hauteskundeetatik bi urte pasa direnean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Maiatzaren 25ean bi urte bete dira azken udal hauteskundeak izan zirenetik. Herri plataformak legez kanpo utzi zituzten, beraz, ez dute ordezkari-rik Udalean. Hori dela eta, hainbat mobilizazio egin dituzte eta Elgeta Auzolanean plataformak bat egin du deialdiokin.

Eguaztenean kontzentrazioa izan zen plazan Elgeta Auzolanean plataformak deituta; "apartheid politikoaren kontra eta eskubide zibil eta demokratikoen alde" izan zen kale agerraldia. Bestalde, plataformak mozio bat aurkeztu du Udalean gai honen gainean erabakiren bat har dadin. Euren nahia da mozio hau hurrengo osoko bilkuran eztabaidatzea.

Elgeta Auzolanean plataformako zerrenda-buru Edurne Alberdiren esanetan, "pertsonek batzuek udaletan ez dagokien postua betetzen dute, eta bi urteren ostean utzi egin behar lukete. Elgetan konkretuki EAJren esku dago hori, eta bada ordua zerbait egin dezan".

Egun, plataformako kideek edozein herritar bezala hartzen



"Apartheid politikoaren kontra" lemapean kale agerraldia egin zuten eguaztenean Elgeta Auzolanean plataformak deituta.

dute parte batzordeetan eta osoko bilkuretan; "erabaki garrantzitsuak hartu behar direnean ez daukagu botoa emateko aukerarik", esan digu Edurne Alberdik.

ARALAR PARTEHARTZEAREN ALDE

Aralarren esanetan eurek beti errespetatu dute herritarrek esandakoa. "Hainbat herritan onartu egin dute EAJ-EAk plataformari

ematea herritarrek emandako erabaki gaitasuna. Gure galdera da EAJri eta EAri, Elgetan zergatik ez? Gai honetan ere argi eta garbi erakutsi dute zein den euren

jarrera: inposaketa eta herritarrek esandakoa ez errespetatzea".

Aralarrek proposatu zuen erabakigune paraleloa sortzea Elgeta Auzolanean Udaleko erabakietan parte hartzeko. "Honek aukera emango luke alderdi bakoitzak herritarrek emandako babesaren tamainako ordezkari-tza izateko. Erabakietan parte hartzeko aukerak badaude, borondatea behar da horretarako. EAJ-EAk Espainiako legeak emandako zinegotziaren botoarekin hartu ditu zenbait erabaki: 2005eko aurrekontuak onartzea, babes ofizialeko etxebizitzak zirenak tasatuak izendatzea..." esan dute Aralarkoek.

EAJ-EA, ESPERANTZAZ

Alkateak EAJ-EAren izenean esan du aukera eman diotela plataformari gai garrantzitsuen eztabaidan parte hartzeko. Gaineratu du; "Elgeta Auzolanean ezin du botorik eman osoko bilkuretan. Hala ere, aire berriek esperantzarako bidea zabaltzen dute. Badirudi Alderdien Legea aldatu egingo dela, eta hurrengo legegaldian edo datozen hauteskundeetan edozein alderdik izango duela aurkezteko eskubidea".

EUSKARA

Hika ikastaroan 15 lagunek dihardute

I.A.

Udaleko Kultura batzordeak bulzatutako hika ikastaroan 15 lagunek eman dute izena eta jadanik hasi dituzte eskolak.

Eguazten eta eguenetan batzen dira ikasleak Juan Martin Elexpurrekin. Taldean adin guztietako jendea dago, gehienak gazteak, hika gutxitan egin eta egoki erabiltzen ikasi nahi dutenak.

Hika noiz, nola eta norekin erabili, hikak dakarren afektibotasuna, konplizitatea... ikasi

zuten lehen saioan. NOR-en taulari eman diote erreposoa eta NOR-NORI-rekin ere hasi dira.

HELBURUA, ERABILERA

Hikaren gaineko eskolak jaso ostean, erabilera izango da helburu nagusia; noka eta toka. Emakumeekin egiten den hika nahiko makal dago eta belaunaldi batetik aurrera ez da erabiltzen.

Ikastaroak ekainaren erdira bitartean iraungo du, eta eskolak kultura etxean emango dituzte, eguazten eta eguen iluntzetan.



Juan Martin Elexpurrek emango ditu hikaren gaineko eskolak.

LABUR

Garagardo jaia izango da zapatuan gaztetxean

Bihar, zapatua, Garagardo jaia egingo dute gaztetxean. 19:00etan garagardo kupelak zabalduko dituzte eta 200 litro doan banatu; beraz, gastatu bitartean nahi beste garagardo edateko aukera izango dute gaztetxera gerturatzen direnek. Jaia borobiltzeko 22:00etan hasita kontzertua egongo da. Apunta, Agressive Combat, Last Rebel, Harrikada eta Seme Putiek taldeek jardungo dute eta eurekin batera beste talde sorpresa bat ere izango da.

ERREPIDEAK

Obretan ipinitako semaforoaren kableak moztu egin dituzte

I.A.

Elgetako bidean Uberako eta Izarrek bihurtu obretan dihardute. Hori dela eta, trafikoa erregulatuko semaforoak ipini dituzte. Semaforo hauek 45 segundotan behin aldatzen dira, horrela autoak noranzko batean edo bestean bakarrik joateko. Ez dira semaforo arruntak eta argi laranja eta gorria baino ez dute. Beraz, autoak argi laranja dagoenean baino ezingo dira pasatu.

Auto gidariek, ordea, argirik gabe aurkitu dituzte inoiz sema-

foroak. Izan ere, ezezagun batzuek moztu egin dituzte semaforoaren kableak, eta horrek arazoak sortu ditu trafikoa.

Kamioiendako bidea itxita dago, baina asteon kamioi luze bat trabatuta geratu da Izarrek bueltan. Ez da lehenengo kamioilaria pasatzen saiatu eta traban geratu dena.

LAPURRETAK

Bestalde, Ertzaintzatik jakinarazi digute bihurtu obretan lapurreta txikiak izan direla azken egun hauetan.

Izarrek bihurtu inguruan obretako materiala lapurtu dute, eta ertzainek ikertzen dihardute lapurreta honen nondik norakoak.

Ubera inguruan, berriz, 18 taula lapurtu zituzten astelehenean. Ertzaintza kasu ikertzen hasi eta berehala harrapatu zuten lapurretaren usteko egilea; izan ere, taulak autoan atzeman zizkioten, eta jabearen esku laga berriz ere. Lapurreta txikia izanik ez dute egilea atxilotu eta isunik ere ez diote ipini; baina epai-learen aurretik pasa beharko du.



IBAN ARANTZABAL

Obra amaitu bitartean, uztaile arte, semaforoekin erregulatuko dute trafikoa.

HIRIGINTZA

Elizako tximistorratza berritu egingo dute

I.A.

Elizako kanpandorrean dago herritarrek oinaztuetatik babesteko tximistorratza. Orain, berritzeko erabakia hartu du Udalak, eta kable berria ipintzeaz gain, masta luze bat ere jarriko dute. Berritze lanak abuztua baino lehen egin nahi dituzte.

Segurtasun arauak eskatzen dituzten oinarriak betetzen ez dituelako elizako kanpandorreko tximistorratza berritu egingo duela jakinarazi du Udalak.

Kanpandorrean bertan, goiko partean bi metro luzeko masta ipiniko dute, eta honekin batera kable berri bat, elizako dorretik Artekaleko lorategira joango dena.

Lehen elizara bertara bideratuta zegoen lurrerako lotura linea, eta hori arriskutsuagoa zen.

Berrikuntzak eginda 104 metroko erradioa babestuko dutela aurreikusi dute adituek; beraz, herriko erdigunea oinaztuetatik salbu geratuko litzateke.

Securitecno enpresa arduratuko da berrikuntza lanez, eta 5.145 euroko kostua izango dute. Behin Gobernu batzordeak proiektua onartuta, asmoa da abuztua baino lehen lanak amaituta egotea.

KALTEAK TXIKITU

Alkateak esan digunez, "sarritan izaten dira oinaztuak herrian, eta tximistorratza berrituta, oinaztuak egonez gero aparatu elektrikoak ahalik eta gutxien kaltetzea da helburua".

MUSIKA

Karidadeko Benta taldearen kontzertua gaur Espaloian

I.A.

Karidadeko Benta taldeak kontzertua eskainiko du gaur, bariakua, 22:30ean hasita Espaloian.

Jon Maia bertsolariaren inguruan sortutako taldea da. Bertso batzuk lagun artean musikazetik hasi eta taldea handituz joan da. Orain sei lagunek osatzen dute: perkusioan Imanol Mantrola; klarinetean, tronpetan eta saxofoian Inaxio Tolosa; baxuan eta lauda arabiarrean Jon Manzidor; helikoian eta biolinean Domentx Uzin; eta ahotsetan, Jon Maia eta Aran Santamaria.

MUSIKA AUKERA ZABALA

Karidadeko Bentak bertsoa du oinarrian, eta musika eraginak hamaika; lehen kioskoetan jotzen



GOIENKARIA

Jon Maia bertsolariaren inguruan sortutako taldea da Karidadeko Benta.

zuten orkestra txiki bat bezalako. Ez dago, momentuz, genero baten barruan sailkatzerik, baina giro berezia sortzen dute.

Bi disko dituzte kalean, eta euren musikaz eta ikuskizunaz zuzenean gozatu nahi dutenek gaur dute aukera.



Iraitz Lazkano saritua literatur lehiaketan

Zapatuan banatu zituzten Bergaran Koldo Eleizalde literatur lehiaketako sariak. Ipuinen atalean Iraitz Lazkano elgetarrak irabazi du bere mailako lehen saria *Pepita eta Pepito* lanarekin. Antolatzaileek azpimarratu dute Iraitzek bere amama Bixenta Arrillagarekin elkarlanean egin duela ipuina. Belau-naldiz belau-naldi etxean entzundako ipuin batetan oinarrituz idatzi du Iraitzek lana, amamari jasota, hain zuzen ere. /I.A.

PILOTA

PARTIDUAK

ARETO FUTBOL TXAPELKETA

- Maiatzak 28
- 15:00: Txapela-Fuxion Vicios
- 16:00: Vicios-Añiketan . . . Txapela
- 17:00: Isspro-Makanaki . . . Añiketan

PILOTA

- Maiatzak 27
- 21:00: Gorka-Peñas (Kadeteak)
- Gero: Merino-Idoate (Kadeteak)
- Gero: Errea-Argote (23 urtez azpikoak)
- Gero: Olaetxea-Olazabal (23 urtez azpikoak)
- Maiatzak 29
- 11:00: Beroiz-Martin (Kadeteak)
- Gero: Iturrioz-Jaka (Kadeteak)
- Gero: Rico-Urrutikoetxea (Kadeteak)

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 27a / 8. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Profesionalen pilota partiduak emango die hasiera Gorpuzti jaiei

OIHANA ELORTZA

Aurten ere egubakoitz gauera-ko antolatu dute profesional mailako pilota partidua. Xala-Elkoro eta Del Rey-Paskual bikoteen arteko lehia izango da Zubikoan, 22:30ean. Gorpuzti eguneko prozesioa domekan izango da, betiko orduan eta betiko ibilbidearekin.

Profesional mailako pilota partiduak emango die hasiera aurten Gorpuzti jaiei. Oñatz dantza taldeko dantzariak, ordea, zabaldu dute dagoeneko Gorpuzti usaina herrian. Ohitura zaharrari eutsiz, gaur, egubakoitza, goizean herriko auzoetan ibili dira dantzan eta arratsaldean, berriz, herriko ikastetxeetan.

PROZESIOA DOMEKAN

Gorpuzti eguneko prozesioa domekan egingo dute aurten ere. Meza nagusiaren ostean hasiko da eta betiko ibilbidea izango du. Arratsaldean, berriz, urteroko dantza ikuskizuna eskainiko du Oñatz dantza taldeak plazan.



Gorpuzti eguneko prozesioa domekan izango da herriko kaleetan.

GOIENKARIA

IPARRALDEA OÑATIN

Iparraldea Oñatin asterako antolatu dituzten ekitaldiak ere Gorpuzti jaien barruan sartzen dira.

Gaur, egubakoitza, adibidez, rock kontzertua egongo da gaztelekuan, Oñatiko Malenkonia eta Uztaritzeko Kolpe-k taldeekin.

Zapatuan, berriz, dantza eta gastronomia jaialdia egongo da goizean, Beltzeria ikuskizuna arratsaldean eta kontzertua gauean.


UDALA

Kontribuzioa ekaina amaitu baino lehen ordaindu beharko da

O.E.

Maiatzaren 16tik ekainaren 30era bitartean da epea 2005eko kontribuzioa ordaintzeko, hiri eta landa izaera duten ogasun higiezinaren gaineko zerga pagatzeko. Epe barruan ordaintzen ez duenak errenergua izango du.

Helbideratutako errezeriboak banku edo aurrezki kutzako kontu korrontetik kobratuko dira zuzenean ekainaren 10ean. Besteie, adierazitako helbide fiskalera bidaliko zaie. Ekainaren 1erako zergadunak ez badu errezeriboa etxean jaso, udaletxeko zerga bulegoan eskatu beharko du.



Ekainaren 10ean kobratuko dituzte helbideratutako errezeriboak.

O.E.

JARDUNALDIAK

Txokolateaz gozatu eta jardungo dute

O.E.

Bihar, zapatua, egingo dute Unibertsitatean txokolatearen inguruko lehen jardunaldia. 17:00etan hasiko da ekitaldia eta hiru atal nagusi izango ditu: Klaxk, Oñatiko Txokolateroak elkartearen aurkezpen ofiziala; Oñatiko txokolategileak hizpide izango dituen mahai ingurua; eta txokolate dastatzea.

Jardunaldi hauetarako lagun asko gonbidatu dituzte. Adibidez, Natxo Corbero Bartzelonako Kakaoaren eta Txokolatearen Institututik etorriko da txokolate dastatzea gidatzeko. Mahai

inguruan, berriz, Antton Azpiazu txokolategilea, Antxon Agirre etnologoa eta Jose Antonio Azpiazu eta Gerardo Elortza historialariak egongo dira.

ZEREMONIA OFIZIALA

Ekitaldiaren azken zatian, zeremonia berezia egingo dute. Klaxk elkarteak Oñatiko txokolategilearen *mandamenduen* zina egingo dute eta *diploma* eta *logu* soinean dituztela, txokolatearekin *komulgatuko* dira Unibertsitateko kaperan. Zeremoniaren testiguak izango dira, besteak beste, Joxe M^a Gorrotxategi eta Luis Mokoroa.

LABUR

Saritu dituzte Errekaldeko jaietako zenbakiak

Domekan bazkalostean egin zuten Errekaldeko jaietako zenbakien zozketa. Hauexek dira zenbaki sarituak: 1.806 zenbakiak asteburu bat irabazi du nekazari turismo batean bi lagunendako; 6.504 zenbakiak mendirako motxila bat eta 6.802 eta 4.702 zenbakiak afari bana dute bi lagunendako Urbia tabernan.

Zegama-Aizkorriko mendi maratoia domekan da

Etzi, domeka, egingo dute IV. Zegama-Aizkorri mendi maratoia. 09:00etan abiatuko dira korrikalariak Zegamatik eta 42,195 kilometro egingo dituzte EAeko tontorrik altuenean barrena: Aratz, Aizkorri, Aketegi eta Aitxuri. Ibilbidea eta probaren ezaugarriak aurreko urteetako antzerakoak dira. 2005eko munduko kopako lehen proba puertugarria izango da.

maiatzean eta
ekainean

2x1

BIDAIA-LAGUNA DOAN

Konpara ezazu prezioa - konpara ezazu kalitatea

12.000

Plaza Bakarrik

8.000 GELDITZEN DIRA!

KANARIAK

8 egun / 7 gau

MAIATZA ETA EKAINA

TENERIFE

	OB	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
VALLELUZ APTU. 2LL	OB	366€	DOAN
CHIMISAY H. ***	HG	420€	DOAN
PALMERAS PLAYA APTU. 3LL	ME	548€	DOAN
TURQUESA PLAYA G.H. ****	HG	602€	DOAN
PLAYACANARIA H. ****	HG	626€	DOAN
BONANZA PALACE H. ****	ME	722€	DOAN

TENERIFE HEGOALDEA

TENERIFE GOLF H. ****	ME	536€	DOAN
EST. GREEN PARK 3LL	ME	548€	DOAN
AGUAMARINA GOLF H. ****	HG	578€	DOAN

LANZAROTE

EST. SOL MORROMAR 3LL	ME	502€	DOAN
RIOSOL APTU. 2LL	GB	660€	DOAN
BEATRIZ COSTA H. ****	ME	666€	DOAN
PARADISE ISLAND H. ***	GB	778€	DOAN
MARINAS CLUB RESORT H. ****	GB	786€	DOAN

GRAN CANARIA

CONCORDE H. ****	ME	746€	DOAN
MELIÁ TAMARINDOS H. *****	HG	840€	DOAN

MALLORCA

8 egun / 7 gau

MAIATZA

EKAINA

	ME	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
SAGA H. **	ME	420€	DOAN	428€	DOAN
SOL MASTINES/CHIHUAHUAS H. ***	ME	476€	DOAN	532€	DOAN
RIU BALI H. ***	ME	562€	DOAN	622€	DOAN
ILLETAS H. ****	ME	632€	DOAN	710€	DOAN
RIU BONANZA PARK H. ****	ME	640€	DOAN	748€	DOAN
RIU PLAYA CALA MILLOR H. ****	ME	686€	DOAN	754€	DOAN
RIU PLAYA-PARK H. ***	GB	704€	DOAN	774€	DOAN
DELTA H. ****	ME	744€	DOAN	774€	DOAN
RIU CAMP DE MAR H. ****	ME	806€	DOAN	856€	DOAN

DOMINIKAR E.

9 egun / 7 gau

MAIATZA

EKAINA

	GB	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
PUNTA CANA					
OFERTA RIU ****	GB	900€	DOAN	1.038€	DOAN
NATURA PARK H. *****	GB	984€	DOAN	1.134€	DOAN
RIU TAINO H. *****	GB	1.164€	DOAN	1.164€	DOAN
FIESTA BEACH H. *****	GB	1.164€	DOAN	1.164€	DOAN
LA ROMANA					
SANTANA BEACH H. *****	GB	1.174€	DOAN	1.174€	DOAN
PUERTO PLATA					
RIU MAMBO H. *****	GB			1.090€	DOAN

MEXIKO

9 egun / 7 gau

MAIATZA

EKAINA

	GB	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
CANCÚN					
RIU CANCÚN H. *****	GB	1.340€	DOAN	1.340€	DOAN
RIVIERA MAYA					
CARACOL VILLAGE H. ****	GB	1.198€	DOAN	1.198€	DOAN
RIU LUPITA H. *****	GB	1.228€	DOAN	1.228€	DOAN
RIU TEQUILA H. *****	GB	1.352€	DOAN	1.352€	DOAN

KUBA

9 egun / 7 gau

MAIATZA

EKAINA

	HG	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
LA HABANA					
COPACABANA H. ****	HG	906€	DOAN	906€	DOAN
GRAN CARIBE PLAZA H. ****	HG	942€	DOAN	942€	DOAN
GRAN CARIBE INGLATERRA H. ****	HG	1.022€	DOAN	1.022€	DOAN
TRYP HABANA LIBRE H. *****	HG	1.214€	DOAN	1.214€	DOAN
VARADERO					
RIU LAS MORLAS H. ****	GB	1.180€	DOAN	1.180€	DOAN

2x1 KOSTAK

8 EGUN / 7 GAU
BIDAIA-LAGUNA DOAN

Costa Brava · Costa Daurada · Costa de Azahar
eta Valentzia · Costa Blanca · Costa de Almeria ·
Costa Tropical · Costa del Sol · Costa de la Luz

**IRTEERAK
BILBOTIK**

Irteerak Bilbotik, Kariberakoak izan ezik (hauek Madrildik). Prezioak bi pertsonentzat dira, logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean, Maiatza eta ekaineko Irteera zehaztuz bakarrik. Erregimen igoera, tasak, bisa eta gestio gastuak ez daude barne. Erregimena: OB: Ostatua Bakarrik; HG: Hotela eta gosaria; ME: Mantenu Erdia; MO: Mantenu Osoa eta GB: Guztia Barne. PLAZA MUGATUAK.

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGITEN DUGU

VIAJES IBERIA

902 108 108

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GENIAGO...

viajesiberia.com



Ian etorkizuna gertuago duzu

Bergarako Migel Altuna institutuan, lan etorkizuna gertuago duzu!
75 urte daramatzagu kalitatezko profesionalak gertu-gertutik hezten.

Ikasle-irakasle arteko harremana lantzen dugu, punta puntako azken teknologietara egokituta gaude eta gainera sekulako erraztasunak ematen dizkizugu zure ikasketak bertako zein atzerriko enpresetan praktikan jartzeko.



GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazio eta Finantzak
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Plastikoa eta Kautxugintza

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanizazioa (goizez eta gauez)
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak
- Plastikoa eta kautxuaren eraldaketa
- Administrazio kudeaketa



943 76 24 91

943 76 38 40

www.imaltuna.com

75
urte
hezten

Zatoz eta ezagutu gure espezialitate eskaintza zabalal!



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Ibargarai I • 20570 • BERGARA

ASTE BERDEA' 05

maiatza

30 31

01 02 03 04 05

ekaina

Elgeta

Ekainak 1, asteazkena

10:00. Herri Eskolako umeek zakarrak batuko dituzte eurek erabiltzen dituzten inguruetan.

Ekainak 2, osteguna

MARRAZKI LANAK

Gaia: Elgetako ingurumena nolakoa izatea gustatuko litzaizuke? Herri Eskolako umeak.

MARRAZKIEN ERAKUSKETA

19:00. Espaloia Aretoan **HITZALDIA**:
“Gure eguneroko elikaduraren aztarna ekologikoa”
Hizlaria: Patxi Montero.

Ekainak 5, igandea

10:00. Plazan **MENDI IRTEERA**
“Lagun artea” errotaraino bisita egin eta ezagutzera.

